

KORSIKA. Bi jatetxeri su ematea manatzeagatik, hiru urteko espetxe zigorra jarri diote epaileek, bat betetzeko

Nazionalisten alde jokatzeari leporatu dio Bonnet prefet ohiak Lionel Jospini

Aiacciuko auzitegiaren epaiak dei egitea erabaki dute kondenatuek



GERARD JULIEN / EPA

Bernard Bonnet prefet ohiak, Aiacciuko epaitegira iristen, ia azaroan.

Erredakzioa | DONOSTIA

1998ko otsailaren 13a eta 1999ko maiatzaren 3a bitartean Korsikako prefet izandako Bernard Bonnetek Frantziako lehen ministro Lionel Jospinen aurka akusazio larriak egin zituen atzo, Aiacciuko auzitegiak hondartzeko bi jatetxe atentatuz desegitea manatzeagatik kondenatu ostean. 2001eko azaroaren 19a eta abenduaren 7a bitartean egin zen epaiketa-aren auzi-erabakia atzo eman zen jakiterat, eta jujeek Bernard Bonnet hiru urteko espetxe zigorrera kondenatu dute, baina hauetatik bat du bete beharrekoa.

«Kondenatu naute, ez baitut aitortu nahi izan sekula eman ez nuen agindu bat, eta hori oso larria da», aditxerat eman zuen atzo Bonnet prefet ohiak, epaiari errekurtsioa jarriko ziola gaineratuta. Alabaina, hitz are gogorragoak izan zituen gobernu frantziarraren alderat eta honen buru Lionel Jospinen kontra. «Gobernu honetako prefet bat erail zuten auzitegi honetatik 200 metrora; alta bada, gobernu honek berak aske uzten du Claude Erignac prefetaren hiltzailea; gobernu honek berak ere presio egin zuen auzi hau Aiacciu egina izateko, nazionalistek hala eskatu baitzuten», erran zuen hitzez hitz Bonnetek.

Erignac prefetaren ustezko hiltzailatzat emana den eta oraingoz ihesean dagoen Yvan Colonna nazionalista korsikarra atxilotzerik lortu ezinaz, pre-

ERIGNAC AUZIA

Erignac prefetaren hiltzailea atxilotzeko garaia noiz izango den galdetu dio Bonnetek Jospini

fet ohiak hauxe gaineratu zuen: «2001eko otsailaren 6an, Lionel Jospinek Legebiltzarrean aditxerat eman zuen Claude Erignacen ustezko hiltzailea harrapatzeko den-dena egingo zela, unea etorri bezain azkar; nire galdera da, beraz: noiz izango da une hori?».

Jendarmeak zigortuta

Bonnetekin batera auzipetuak izan ziren eta kondenak atzo jaso zituzten beste zazpi auzipetuek, ordea, ez zituzten horrenbesteko adierazpen dorpeak egin. Gerard Pardini Bonnet prefetaren kabinete zuzendari ohiak eta Korsikako jendarmeen buruzagi nagusia zen Henri Mazeret koronelaren aurka 30 hilabeterako espetxe zigorra ebatzi zuten epaileek, hauetatik sei bete beharrekoak. Hauek ere iragarri zuten errekurtsioa jarriko ziotela epaiari.

Norbert Ambrose jendarme kapitainaren aurka 24 hilabeterako kartzela kondena agindu zuen auzitegiak —sei betebeharrekoak—. Beste lau jendarme, aldiz, beste kondenarik izatean, egin beharreko 18 hilabeteko presondegi gaztigura kondenatu zituen Aiacciuko auzitegiak.

IRLANDA. Hogeita hamar polizia zauritu dira eta 11 lagun atxilotu dituzte katoliko eta protestanteen arteko borroken ondorioz

Holy Cross eskola ireki dute, gauean istilu ugari izan arren

Agentziak | BELFAST

Ostegun gauean istilu larriak gertatu arren, ireki zuten Belfasteko Ardoyne auzotegiko Holy Cross eskola katolikoa atzo goizean, liskar gehiagorik gabe. Polizia ugarik zainduta ireki zuten, haatik, eskola. Hain zuzen ere, polizia hauetatik hogeita hamar bat zauritu egin ziren ostegun gauean, ehunka katoliko eta protestanteren artean izandako borroken ondorioz. Poliziek, berriz, 11 lagun atxilotu zituzten.

Manifestari katoliko eta protestanteen arteko borroketan molotov koktelak, etxean egindako lehergailuak, harri lauzak eta suzuriak jaurtiki zituzten bi aldeek. Bi taldeen artean jarriak zeuden poliziek negar gasa eta plastikozko balak era-

bili zituzten. Manifestari katolikoek Brompton Park inguruan eta protestanteek, aldiz, Twaddell Avenue aldean eraikitako barrikadentzat, berriz, sei ibilgailu kalean zeharkatuak eta erreak izan ziren. Autobus bati ere su eman zioten manifestari zenbaitek, honen gidaria mehatxaturik Ardoyneko auzitegirat joatera behartu eta gero.

Joan den asteazken gauean ere istilu oso larriak gertatu ziren Belfast iparraldeko auzotegi honetan. Katoliko eta protestanteen arteko liskar hauetan 48 poliziek zauriak jasan zituzten. 136 molotov koktel jaurtikiak izan zirela zehatu zen, zazpi gazte kolpatu zituen Poliziek egindako plastikozko balen tirokaldietan eta bi katoliko gazte zauriak izan

zituzten protestanteen aldetik egindako tiroen ondorioz.

David Trimble, «goibelduta»

Ipar Irlandako lehen ministro David Trimble «oso goibelduta» azaldu zen atzo bigarren gauerako jarraian gertatutako borroka larri horiengatik. Bere gobernuak agindutako artekari-tzak batek, nekearen nekez baina, lortu zuen 2001eko abenduan auzo horretan bertan izan ziren gatazkei amaiera ematea. Katoliko eta protestanteen arteko liskarrei konponbide baketsu bat aurkitzeko gisan, foro baten eraketa hitzartu egin zen, Ardoyneko auzotegiaren etorkizunaz hitz egiteko xedez.

Egonotako gatazkak azken garaiotako bortitzenak izan badira ere, gogoratu behar da Ardoyneko Holy Cross eskolaren inguruko istiluak 2001eko ekainean piztu zirela, manifestari protestanteen erasoetatik landa.



PETER MORRISON / AP

Jendea, Belfasteko Crumblin Road aldean, istiluen biharamunean.



ISASTEGI
sagardotegia

• TXOTX DENBORALDIA •

URTARRILAREN 12an IREKITZEN DUGU ZATOZ!!

☎ 943 65 29 64 - TOLOSA (Gipuzkoa)